

"Kasu azterketa" metodoaren izaera: kasu azterketa diseinua EHUko hainbat tesi lane-tan.

Karmele Bujan Vidales
Donostiako Irakasle Eskola

Kasu-azterketa esan liteke metodo berezietako bat dela. "Kasu-azterketa" ikerketa metodoak kuantitatibo-kualitatiboen ikerketa ikuspegi bateratuaren eta bien artean adiskidetzarako honako proposamen hauek genituzke :

- Lehenik eta behin, kasuak lagun dezake, metodo anitzen erabilera.
- Bigarren, metodo kualitatibo eta kuantitatiboaren konbinaketak "fenomeno"ak aztertzeko baliagarria dela.
- Hirugarren eta azkenik, datu kualitatibo eta kuantitatiboak erabiltzea, datuen triangulazioa eta interpretapena aurrera eramatea dela azterketaren fase guztietan: laginketa-aldian, instrumentazioan, datu-bilketan, analisi eta txostena osatzerakoan. Triangulazio prozedura arras erabilia da metodologia desberdinen erabileran datuak eta interpretazioak kontrastatu ahal izateko .

Horregatik, hain zuzen ere, giza-zientzien disziplinar-teko ikerketaren estrategian bai prozedura kualitatiboak eta baita kuantitatiboak ere erabiltzen ari dira.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet Psikodidaktika Jardunaldi hauen antolatzailei nere komunikazio hau hemen aurkeztea onartu izan dutelako. Eta, besterik gabe, saiaturko naiz gaiari heltzen eskema honen arabera:

- 1) "Kasu azterketa" ikerketa metodoaren izaera.
- 2) "Kasu azterketa" ikerketa-diseinua hainbat tesi lanetan.

1. "KASU AZTERKETA" IKERKETA METODOAREN IZAERA.

1.1.- Marko teorikoa.

Lehenengo puntuarekin hasita, Ikerketa-metodoa "kasu-azterketa" zer den adieraztea dagokigu. "Kasua" esaten dugunean, adibide jakin batez ari garela esan nahi dugu; alegia, zerbaiti egiten diogu erreferentzia. "Zerbait" hori izan daiteke azterketa-unitate bat, edo gizabanakoa, erakunde bat, programa bat edota gertaera mugatu bat. Beraz, egoera baten, pertsona baten edota gertaera baten azterketa osatu eta intentsiboa genuke kasu-azterketa.

Marcelok eta beste zenbaitek 1991 n egindako ikerketa baten arabera, hauek dira "kasu-azterketa" gainerako ikerketa-metodoetatik bereizten duten ezaugarriak:

- Osotasuna: "Kasu-azterketak" osotasun holistikoak dira.
- Berezitasuna: "Kasu-azterketak" garbi islatzen ditu azterketa-mota hori antzeko azterketetatik desberdintzen duten berezitasunak, idiosinkrasia eta zehaztapen lokalak.
- Errealitatea: "Kasu-azterketa" ez da mugatzen errealitateari buruzko informazioa ematera, kontuan hartzen baititu errealitate hori osatzen duten arazoak, paradoxak, gatazka-egoerak eta egiazko gertaerak.
- Parte-hartzea: Kasuan parte hartzen duten kide guztiak jotzen ditugu parte-hartzailetzat, baita ikertzailea bera ere; izan ere, prozesuaren une guztiak jarraipena egitean, bera ere partaide izatera heltzen da.
- Negoziazioa: "Kasu-azterketa" bat egiten aritu ahala, negoziatu egin behar da lortutako informazioa, hau da, erabaki behar da datuak nola erabili, zein diren azterketan zehar bete beharreko eginkizunak, zein diren parte-hartzaileen ikuspegiak eta nahiak...
- Isilpekotasuna: Azterketa-mota honek erakundeak eta pertsonak inplikatzeko dituen diskrezioz jokatu beharra dago partaideei inolako kalterik ez eragiteko.
- Eskuragarritasuna: Ulerterraza izan behar du, hau da, alor horretan aditua ez denak ere arazorik gabe ulertzeko modukoa. Orobat, argia izan behar du bai ikertzailearentzat bai parte-hartzaile guztientzat ere.

"Kasu"-azterketa metodoa aplikatzen denean, fidagarritasuna bermatzeko, ezinbestekotzat jotzen da ikertzaileak aurrean aipatu diren ezaugarri horiek guztiak kontuan izatea.

1.2.- Lan enpirikoa.

"Kasu-azterketa" lana bere bidea urratzen hasita antolatu behar da ikerketa prozesuaren nondik norakoa.

Lau etapatan antolatu ohi da "kasu-azterketaren" lan enpirikoa.

- 1- ETAPA AZTERTZAILEA
- 2- ETAPA DESKRIBATZAILEA
- 3- ETAPA ANALITIKOA
- 4- ETAPA SINTETIKOA

1.- ETAPA AZTERTZAILEA.

Etapa aztertzailean ikerketa-diseinua burutzen da.

Bertan, "Kasu-azterketa"n dauden faseak edo sekuentziak, parte hartuko duten pertsonak eta erabiliko diren lan-tresnak aurreikusten dira. Ondoren ikertzaileak duen lehen zeregina "kasua"n girotzea izaten da. Hasiera-hasieratik garbi utziz bera nor den eta zer helburu lortu nahi dituen. Beraz, lehen momentutik "kasuan" parte hartzen duten pertsonak ezagutuko dute ikerketari buruzko informazioa ikertzailearen eskutik.

2 ETAPA DESKRIBATZAILEA

Ikerketaren une gutzietan Ikertzaileak kontuan hartuko du norantz jo nahi duen, eta baita zein diren bere helburuak ere; baina, era berean, gogoan izango du beti kasu-metodologia bera ere. Horregatik, malgutasunez jokatu du ikerketa-prozesu osoan, eta jarrera irekia azalduko du egoerak eskatzen duen edozeren aurrean.

Datu-bilketarako estrategiak hautatzeko orduan ere, jarrera irekia erakutsiko du. Baina, hori bai, parte-hartzaileek informazio egiaztagarria emateko, ikertzaileak konturatu da datu-bilketa egitean ezinbestean dibertsifikatu behar dituela iturriak eta lan-tresnak.

Datu-bilketan ikertzaileak erabilitako tresnei dagokienez, bere estilo eta egoerari ongi egokitzen direnak aukeratzen saiatuko da. Hauek dira ohizkoenak, hain zuzen ere:

- 1 BEHAKETA PARTE-HARTZAILEA
- 2 ELKARRIZKETAK
- 3 EGUNKARIAK
- 4 GALDEKETAK

Ondoren adierazpen txiki bat emango dut teknika bakoitzaz:

1.- BEHAKETA PARTE-HARTZAILEA

Ikertzaileak behaketaren bidez hartutako oharrak dira. Teknika honen bitartez, egoerak horretarako aukera ematen duenean, ikertzaileak "in situ" jasotzen ditu oharrak, bai inguruan ikusitakoari buruz bai berak dituen bizipenei buruz edota atsedendaldietan izandako elkarrizketa informaletan entzuten dituen iruzkinei buruz.

2 ELKARRIZKETAK

Benetan tresna baliagarria da parte-hartzaileen interpretazio pertsonala eza-gutzeko eta beraiek emandako iritziak jasotzeko ere.

Elkarrizketak erdi-egituratuak izaten diren kasuetan, elkarrizketatzaileak badu aldez aurretik prestaturiko gidoi moduko bat elkarrizketa bideratzeko. Baina, aldi berean, nahiko malguak direnez, elkarrizketatuak ere badu aukera, hala nahi izanez gero, haria aldatzeko.

Esan beharra dago, fase desberdinetan gauzatzen direla elkarrizketak; izan ere, horrela egiteak aukera eman du kasuak daraman prozesuan zehar gertatutako aldaketa mamitsuak kontuan hartzeko.

Elkarrizketatzen diren pertsonen kopurua dela eta, esan behar da egokia izan behar dela, baita kasuan inplikatuak diren talde desberdinetan hautatzen diren ordezkariak ere.

3 EGUNKARIAK

Egunkarietan bai parte-hartzaileek bai ikertzaileak ere kasuari buruzko hausnarketak idatziko dituzte egunez egun.

Kasu-azterketarako oso tresna baliagarriak dira, balio dutelako galdeketen, elkarrizketen eta behaketaren bidez jasotako informazioa osatzeko. Esan behar da, gainera, balio pragmatiko handiko datuak eskaintzen dituztela; izan ere, egileek zuzen-zuzenean eta sentitu eta berehala idatzitako pertzepzioak islatzen dituzte.

Egunkari-egileen hautaketa egiteko orduan, baldintzak zehaztu behar dira.

4 GALDEKETAK

Galdeketa da erabilia den beste tresna-mota bat.

Horrela, galdeketari erantzunez, hainbat pertsonen ikerketa-gaiaren ikuspegi panoramikoaren berri ematen dute.

3 ETAPA ANALITIKOA

Aurretik aipatutako dokumentu horiek guztiak ikertzaileak eskuartean dituela, beharrezkotzat jotzen da informazio guztia antolatzea. Datuak sailkatu eta kodetzeko orduan, esan behar da, arian-arian, ikertzaileak bere metodologia propioa sortuz joaten dela, azteketa-lanak sortarazten dizkion premiei erantzuna emate aldera. Hori dela eta, malgutasunez jokatu behar du prozesu osoan. Eta sormen handiko lana izaten da norbere metodologia bilatzea.

Jasotzen diren dokumentu guztiekin —bai egunkari, memoria, elkarrizketa edo besteren bat izanda—, ondoren aipatuko ditudan urratsak ematen dira beti:

- Lehenbizi, gai-unitatea aztertu, sakonetik arakatu eta identifikatzera iristen da.
- Ondoren, oinarritzko ideiak jaso eta egitura orokorrak eratzen dira.
- Azkenik, egitura orokor horiek kodetu egin dira.

4 ETAPA SINTETIKOA

Hitzak berak dioen bezala, etapa honetan informazioa nolabait sintetizatzen da. Horretarako, datuak bereizi edo elkartu egiten dira, datu-taldeak osatze aldera. Irizpide hau aplikatzen da taldeak eratzeko orduan: datu-multzoek harreman lauso samarra baldin badute elkarren artean, bereizita jasotzen dira. Alabaina, bat zetozen datuak aurkitzen diren kasuetan, elkartu egiten dira.

Azkenik, datu-triangulazioaz baliatu beharra dago informazioa baieztatu edo ezeztatzean.

Triangulazio-teknika erabiltzeak aukera eman du, alde batetik, lanari sinesgarritasun handiagoa emateko —izan ere, dokumentu-iturriak gehiago kontrastatzea lortu dela teknika horrekin—, eta, bestetik, inolako metodo-mugarik gabe sailkapena eraikitzeke.

Beraz, etapa sintetikoan urrats hauek emango dira:

- Kategoriak aglutinatzaileak
- Triangulazio-metodoa

Teknika bakoitzeko kategoria orokorrak triangulazio-teknika bidez gurutzatuz kategoria are orokorragoa eta aglutinatzaileagoa lortuko dugu.

2)"Kasu azterketa" ikerketa-diseinuaren araketa hainbat tesi lanetan:

2.1.- Tesi lanaren titulua: "Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia".

Saila: EHUko " Hezkuntzaren Teoria eta Historia" .

Urtea: 1994

Ikerketa Proiektuaren helburua: lagunartean euskeraz bizitzera iristea.

Ikerketa proiektuaren diseinua:

SEKUENTZIAK	PERTSONAK	ERABILITAKO TRESNAK
1990eko urritik 1992 ekaina bitartean 1go ikasturtea. Pasai Antxoko AEK esukaltegian eskola egunak: astelehenetik ostegunera bi orduz. 2. ikasturtea. Astero lau egun 2 orduz	15 lagunek osatzen zuten lagunartea (22 urtekoa kide gazteena eta 27koa edadetuena) Arratsaldeko ikastaldea. Gaueko ikastaldea Arratsaldeko ikastaldea -	- Galdetegia - Egunero eskola informea - Hilabetean behin balantze saioak - Behaketa zuzena - Mintzamen saioak grabaketak ikasturte bakoitzaren hasieran eta bukatzeran. - Solasaldien grabazioa

2.2.- Tesi lanaren titulua: "El Orfeón Donostiarra 1987-1997:proyección social, cultural e educativa"

Saila: EHUko "Musika,Plastika eta Gorputz Adierazpenaren didaktika"
Urtea: 1997

Ikerketa Proiektuaren helburua: Explicar el fenómeno social de las agrupaciones corales a partir de la observación del caso concreto del Orfeón Donostiarra (O.D.) a lo largo de sus 100 años de historia.

Ikerketa proiektuaren diseinua:

SEKUENTZIAK	PERTSONAK	ERABILITAKO TRESNAK
<p>La contextualización histórica y social de esta tesis conlleva una dimensión temporal amplia.</p> <p>La autora la define como una Investigación longitudinal diacrónica retrospectiva por su relación con etapas pasadas.</p>	<p>Orfeonistas Cantores Implicación de los socios en la entidad O.D.</p>	<p>Técnicas cualitativas y cuantitativas: Entrevistas Historiales del O.D. Etnografía Observación Conversaciones Análisis de contenido de documentos sonoros, escritos y gráficos. Ficheros de socios orfeonistas cantores. Fichas de actuaciones del O.D. Encuestas</p>

2.3.- Tesi lanaren titulua: " El trabajo cotidiano en dos escuelas infantiles un estudio descriptivo"

Saila: EHUko "Didaktika eta Eskola Antolakuntza"

Ikerketa proiektuaren diseinua:

SEKUENTZIAK	PERTSONAK	ERABILITAKO TRESNAK
<p>Octubre de 1993- Marzo 1994 Horario de visitas de observación en horario de mañana 1 vez por semana y 3 ó 4 horas de duración en franjas horarias distintas.</p>	<p>Educadoras del Primer Ciclo de Educación Infantil</p>	<p>Observaciones Entrevistas Conversaciones Registro narrativo Descripciones de muestras</p>

2.4.- Tesi lanaren titulua: "Claves para la Formación del Profesorado de Educación Física desde una perspectiva crítica: Análisis de un proceso formativo y alternativas".

Saila: "Musika.Plastika eta Gorputz Adierazpenaren didaktika" Urtea: 2000

Ikerketaren helburua: Programa Formativo de Postgrado de Especialización en Educación Física desarrollado a través de diferentes convocatorias, dirigido a profesores en ejercicio que, provenientes de otras áreas de conocimiento y dentro de programas formativos ofrecidos por la Dirección General del Gobierno Vasco, inician una formación que les facilita como especialistas en el área de Educación Física, en el ámbito de la enseñanza obligatoria.

Ikerketa proiektuaren diseinua:

SEKUENTZIAK	PERTSONAK	ERABILITAKO TRESNAK
Recorrido formativo que comienza en el curso 1988-1989 antes de la LOGSE. Curso 1994-1995 implantada la LOGSE.	Profesorado participante Alumnado del aula	Observaciones Registros documentales provenientes de documentos oficiales. Entrevistas en profundidad Diarios de clase

2.5.- Tesi lanaren titulua: "Malestar docente y modelos lingüísticos en el País Vasco. El caso de Urnieta".

Ikerketaren helburua: Entender y describir el problema del malestar docente en relación con los diferentes modelos lingüísticos.

Ikerketa proiektuaren diseinua:

SEKUENTZIAK	PERTSONAK	ERABILITAKO TRESNAK
	Profesorado de dos centros educativos de Urnieta: Colegio Público de Urnieta eta Ikastola de Urnieta. Profesores de otras Escuelas Públicas e Ikastolas. Padres del alumnado. Alumnos. Coordinadores de centros realizaban Planes Intensivos de Formación.	Entrevistas

2.6.- Tesi lanaren titulua: "Elebitasunari buruzko Berrikuntza Haur-Hezkuntza etapen Donostiako Eskola Publiko batean".

Saila: EHUKo "Didaktika eta Eskola Antolakuntza" Urtea: 2001-11-05

Ikerketaren helburu orokorra: Zuhaizti Ikastetxeko Haur-Hezkuntzako Etapan, ikasleak taldekatzeko modu zaharraren eta berriaren ondorioak konparatu nahi dira. Ondorio hauek ikusteko honako ikuspegi hauek ikertuko dira: alde batetik, Haur-Hezkuntza-etapako bigarren zizloan ari diren ikasleen hizkuntza-ikuspegia, instrukzio-ikuspegia eta psiko-sozialeko ikuspegia eta bestetik Etapa bereko zenbait ikuspegi deskribatu nahi dira metodologiari, antolakuntzari, guraso eta irakasleei dagozkienak, jasoko diren datu horien testuingurua ezagutzeko. (107 or.)

Ikerketa proiektuaren diseinua:

SEKUENTZIAK	PERTSONAK	ERABILITAKO TRESNAK
1997-1998, 1998.1999 eta 1999-2000. ikasturteetako Haur Hezkuntza Etapako taldekatze zaharra eta taldekatze berriaren eboluzioa 3-4, 4-5 eta 5-6 urteko ikasleekin	Gurasoak Irakasleak Ikasleak	Entrevista Galdeketa Prozedura aritmetikoak Autokontzeptu-eskala Oinarrizko kontzeptuak Euskara neurtzeko probak

"Kasu-azterketa" ikerketa diseinu hauetan sakonean ez bagera murgildu ere egin, ondoren bilatu izan ditugun ezaugarri amankomun batzuk adieraziko ditugu:

- Kualitatibo den metodologiaz baliatu dira bainan hainbat datu azterketa kuantitatiboarekin eskuratuak izan dira galdeketen bitartez.
- Orokorrean erabili diren Ikerketa-teknikak anitzak izan dira
- Sekuentzi edo denboralizazio ezberdinez baliatu izan dira datuak jasotzeko garaian.
- Ikuspegi desberdinetatik datuak jasoz eta triangulazio desberdinak egiteko aukera datuak egokiak izan daitezela bilatzen da.

ITURRI BIBLIOGRAFIAKOAK:

- Aierza, M. (2001). Elebitasunari buruzko Berrikuntza Haur-Hezkuntza etapan Donostiako Eskola Publiko batean. EHUko argitalpen zerbitzua.
- Aramendi, P.(1994) Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia. EHUko argitalpen zerbitzua
- Bujan, K. (2000). Maila ez-unibertsitarioetan diharduten zuzendaritzakideen prestakuntza kasu baten azterketa. EHUko argitalpen zerbitzua.
- Correa, J.M.(1996). Malestar docente y modelos lingüísticos en el País Vasco. El caso de Urnieta. EHUko argitalpen zerbitzua
- De las Cuevas, C. (1997). El Orfeón Donostiarra 1987-1997:proyección social, cultural e educativa. EHUko argitalpen zerbitzua
- Elizalde, L.M. (1996). El trabajo cotidiano en dos escuelas infantiles un estudio descriptivo. Tesi-lana polikopiatua.